

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 2012an Liburutegien Sarean gehien mailegatu diren dokumentuen zerrenda argitaratu du

*Carlos Ruiz Zafónen "El prisionero del cielo" gaztelaniazko liburua eta José María Asirón Sáez gidoilariaren eta "Martintxo" ilustratzailearen "1512: Nafarroa amets urratua" euskarazko komikia izan dira gehien mailegatu direnak*

Viernes, 25 de enero de 2013

Nafarroako Gobernuak Liburutegien Zerbitzuak 2012an Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean gehien mailegatu diren dokumentuen zerrenda argitaratu du.


Helduentzako liburuen artean, Carlos Ruiz Zafónen "El prisionero del cielo" izan da gehien mailegatu den eleberria. Eleberria iragan mendeko 50eko hamarkadako Bartzelonan dago girotua, eta idazle beraren "La sombra del viento" eleberri arrakastatsuen pertsonaia berberak agertzen ditu.

Euskarazko liburuei dagokienez, gehien mailegatu dena "1512: Nafarroa amets urratua" komiki-liburua izan da, José María Asirón Sáez (gidoilaria) eta "Martintxo" ilustratzailearena.

Komiki-liburuak Gaztelak Nafarroako Erresuma konkistatu zueneko garaia kontatzen du.

Haur eta gazteentzako liburuen artean, gaztelaniazko dokumenturik mailegatuena Jeff Kinneyren "El diario de Greg: la cruda realidad" izan da. Espainiako Molino argitaletxeak kaleratutako "El diario de Greg" liburu sortako bosgarrena da. Liburuan, Greg Heffley nerabearen istorioak kontatzen dira.

Liburutegi publikoetan euskarazko liburuen artean gehien mailegatu



2012an Nafarroako Liburutegien Sarean gehien mailegatu diren liburuak

dena "Dinosauroen garaian" da. Jatorrizko frantsesezko testuaren itzulpena da, dinosauroei buruzko dibulgaziozko lana. Idazleak Matilde Elie eta Nathalie Tordjan dira, eta Donostiako Tarttalo argitaletxeak plazaratu du.

### **Filmak eta bideoak**

Filmei dagokionez, gehien hartu dena Montxo Armendariz zuzendari nafarraren "No tengas miedo" izan da; haur eta gazteentzako filmen artean, aldiz, "La oveja Shaun" izan da.

Amaitzeko, entzuteko dokumentuen artean, "Suena la comparsa" izan zen 2012an gehien hartu zena.

CDa EGN argitaletxearen eta Haizaldi gaiteroen arteko elkarlanaren emaitza izan da. Haizaldi gaiteroak izaten ohi dituzte lagun Iruñeko Erraldoien eta Buruhandien Konpartsak San Ferminetan hiriko kaleetatik egiten dituzten ibilbideetan. Jaietan, konpartsaren inguruan izaten den giroaren soinua entzuten da: txaloak, abesti herrikoiak etab. Horiek ibilbidean zehar jotzen dituzten abesti klasikoen artean entzuten dira.

2012an Nafarroako liburutegi publikoetan gehien mailegatu diren liburu eta ikus-entzunezko elementuen [zerrenda osoa](#) Nafarroako Liburutegien Sareko webgunean dagoen "[Recomendamos](#)" atalean ikus daiteke.